



## HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

**Espedientea: DNCG\_LEY\_3728/22\_02**

**Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzea helburu duen** Lege-aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan abuztuaren 10ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Xedapenaren prozedurari abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea aplikatzen zaio, nahiz eta indargabetuta egon, ekainaren 30eko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen xedapen iragankorrak dioenaren arabera.

Eskaera horri erantzunez, *xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua*, eta *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua* oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

*Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak* xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena abuztuaren 4ekoa da eta oraindik ez da Tramitagunera igo Zerbitzu Juridikoaren txostena. Kontuan hartuta abuztuaren 10ean egin zitzaigula Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari txosten eskaera





Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, **ez da bete aipatutako Dekretuak araututakoa**, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegiari buruzko txostena saileko Zerbitzuko Juridikoaren txosten juridikoa egin ondoren eskatu behar delako.

Hala ere, 233/2012 Dekretuak 15 eguneko epea ezartzen duenez euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegiari buruzko txostena emateko eta saileko txosten juridikoa oraindik Tramitagunera igo ez denez, epea ez igaro dadin, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegiari buruzko txostena egitea erabaki dugu.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Agindu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialean idatzitako testua bidaliko da.”*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

#### b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aztertzen ari garen xedapenaren helburua Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzea da.

Lege-aurreproiektuaren 7. artikuluan Agentziaren Aholku Kontseilua arautzen da. 7. artikuluan 4. azpiatalak honela dio:

*“4. Aholku Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko ahalegina egingo da, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiarekin. Ondorio horietarako, ordezkariak orekatutzat joko da sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean.”*

Hizkuntzaren normalizazioa zein genero berdintasuna biak dira Jaurlaritzako politika publikoetako zeharkako gaiak; kasu honetan, Aholku Kontseiluaren osaerari dagokionez ikusten dugu, eta egokia iruditzen zaigu, genero berdintasunaren aldagaia kontuan hartzen dela; aldiz, hizkuntza normalizazioari buruzko aurreikuspenik ez da jasotzen.

Aholku Kontseiluko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak zaindu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

*Aholku Kontseiluko hautazko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea.*

Halaber, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik gomendagarria izango litzateke beste testu hau ere jasotzea:

*Aholku Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.*

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria